

GUGGENHEIM BILBAO

Ikastetxeentzako programak 2025/26 IKASTURTEA

Artearen bidez inspiratzea eta
ikuspegi berriak zabaltzea

2025/26 ikasturtean zehar, Guggenheim Bilbao Museoa hainbat aurkezpen egingo ditu ikasleek artearen historiaren testuinguruan mugimendu artistikoak, teknikak, egileak eta joerak ezagutzeko aukera paregabea izan dezaten. Museoa bisitatzeak artearen eta arkitekturaren aurrean erantzun originalak, positiboak, pertsonalak eta dibergenteak piztu ditzake ikasleengan, baita zeharkako gaiak modu aktiboan ikastea ahalbidetu ere.

Eskola-programazio dinamikoa prestatu dugu, lau hizkuntzatan eta maila guztietarako prestatu ere, zuek aukera izan dezazuen aurrez aurre zein online parte hartzeko ikasturtean zehar, izan behin bakarrik edo behin baino gehiagotan. Horrela, zure ikasleek eta zuk zeuen erritmoan gozatuko duzue arteaz.

**Egizu bat Hezitzaileen
Community-rekin eta parte
hartu gure programetan!**

Irakasleek osatutako komunitatearen bidez, ikastetxeei eskaintzen zaizkien Museorako bisitaldietan parte hartu ahalko duzu, eta eskuragarri izango dituzu zuretzat berariaz diseinatutako hainbat eduki eta programa ere.

**EMAN IZENA HEMEN.
DOAKOA DA**



Ikasle eta irakasleentzako jardueren babeslea

 **Occident**

Nola hurbildu Museora?

HEZKUNTZA-MAILAK	ZURETZAT					ZURE IKASLEENTZAT	
HH		MATERIAL DIDAKTIKOA: BILDUMA					
LH	IBILBIDEAK				DOAKO SARBIDEA	BISITA TAILERDUNAK	
DBH/ HHE		MATERIAL DIDAKTIKOA: ERAKUSKETAK	ONLINE HITZALDI TAILERRAK	ORIENTAZIO SAIOAK		GIDA BIDERATUAK GAIKAKO IBILBIDEAK	BISITA AUTO-GIDATUAK
BATXILERGOA/ LANBIDE HEZIKETA						BISITAK	

Zuretzat

Artearekin eta Museoko baliabideekin inspirazio hartzeko, ikasteko eta gozatzeko

DOAKO SARBIDEA

Erakusketa berriak nork bere kasa bisitatu eta ezagutzeko. Ordutegia: 10:00–19:00

Programetan parte hartzeko ezinbestekoa izango da ikastetxearen ziurtagiria aurkeztea.

ORIENTAZIO-SAIOAK

Erakusketak Museoko hezkuntza-lantaldearen laguntzaz prestatzeko saioak. Erakusketara bisita barne. Ordutegia: 17:00–18:30, astearteetan euskaraz eta ostegunetan gaztelaniaz

Programetan parte hartzeko ezinbestekoa izango da ikastetxearen ziurtagiria aurkeztea. Ez da laguntzailerik onartuko erreserba aldeztu aurretik egin ezean.

Lagun diezaiogun elkarri: bisita bakoitzean parte hartu dezakeen pertsona-kopurua mugatua denez, bertaratzerik ez baduzu, **ezinbestekoa da abisatzea** beste hezitzaile batzuek parte hartzeko aukera izan dezaten.

2025	Doako sarbidea	Orientazio-saioak
Barbara Kruger: <i>Another day. Another night</i>	Irailak 23 eta 24	Urriak 7 eta 9
Maria Helena Vieira da Silva: <i>Espazioaren anatomia</i>	Azaroak 11 eta 12	Azaroak 18 eta 20
2026	Doako sarbidea	Orientazio-saioak
Lurraren arteak	Urtarrilak 20 eta 21	Urtarrilak 27 eta 29
Guggenheim Bilbao Museoaren BildumaG	Otsailak 10 eta 11	Otsailak 24 eta 26
Ruth Asawa	Apirilak 14 eta 15	Apirilak 21 eta 23

ONLINE HITZALDI-TAILERRA: PEDAGOGIA, ARTEA ETA... JASANGARRITASUNA

Abenduak 10, 17:00–18:30

Lurraren arteak erakusketaren harira antolatua, ikasleekin gelan garatzeko moduko tailerren adibide praktikoak eskainiko ditu. Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleei zuzendua. Gaztelaniaz. Gidaria: Veva Linaza, artista

BALIABIDEAK

Zure ikasleekin erabiltzeko ideiak, inspirazio-iturriak eta ariketa praktikoak.

Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko edukiak Museoaren webgunean eskuragarri.

- Ibilbideak
- Erakusketei eta Museoaren Bildumari buruzko gida didaktikoak
- Haur Hezkuntzarako berariaz prestatutako material didaktikoa



Zure ikasleentzat

Ikasleekin (gehienez 25 ikasleko taldeetan) Museora etortzeko aukerak:

IKASTETXEENTZAKO BISITAK

Museoan barrena ibiltzeko eta erakusketa bat edo gehiago bisitatzeko aukera ematen duten ibilbide malguak.

Ordutegiak: 10:30–12:00 eta 12:15–13:45, asteartetik ostiralera

Parte-hartzea bultzatzeko ikuspegiarekin diseinatuak eta Museoko hezkuntza-arloko kideek dinamizatuak. Haur eta Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta HHEko ikasle-taldeentzat. HH eta LHko taldeen kasuan, bisitak tailer praktiko bat hartzen du barne.

Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez

Prezioa: 40 €

Taldeak: gehienez 25 ikasle

Iraupena: 90 min

BISITA AUTOGIDATUAK

Ikasleekin Museora egindako bisitaldia zeuen kasa dinamizatu nahi duzuen hezitzaileentzat.

Ordutegiak: 11:00, 13:00, 15:00 eta 17:00, asteartetik ostiralera;
13:00 eta 15:00, larunbat eta igandeetan. Doan

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat

GAIKAKO IBILBIDEAK

Gaika antolatutako material moldaerrazak (jasangarritasuna eta emakume artistak), nork bere kasa erraz erabiltzeko modukoak.

GIDA BIDERATUAK

Bildumako artelanik adierazgarrienak sakon ezagutzeko prestatutako fitxa espezifikoak: webgunean daude eskuragarri, eta Rothko, Serra eta Bildumako beste artista ospetsu batzuen lanei buruzko testu didaktikoak, jarduerak eta multimedia-materialak biltzen dituzte. Euskaraz eta gaztelaniaz.

IZEN-EMATEAK

<https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu/ikasi/irakasmundua>

INFORMAZIOA

hezkuntza@guggenheim-bilbao.eus

Tel.: 944 359 090 eta 944 359 067

Astelehenetik ostiralera, 9:00–14:00

GUGGENHEIM BILBAO

Noiz etorriko zarete?

Planifikatu bisitak ikasturtean zehar ikusgai dauden erakusketen arabera:

ERAKUSKETAK ETA DATAK


Barbara Kruger:
Another day. Another night
Ekainak 24–azaroak 9, 2025

Barbara Kruger artista estatubatuarraren arte konprometituak **irudia eta hizkuntza** nahasten ditu, eta inguruan dugun munduari buruz modu kritikoan hausnartzera bultzatzen gaitu. Erakusketa honek aukera paregabea eskaintzen digu irudiek eta hitzek gure erabakietan, sinesmenetan eta besteekiko harremanetan nola eragiten duten hausnartzeko eta eztabaidatzeko.



Maria Helena Vieira da Silva:
Espazioaren anatomia
Urriak 16, 2025–otsailak 22, 2026

Vieira da Silvaren buruzko erakusketa monografiko honek artista portugaldarraren lengoia artistiko berezia ezagutzera gonbidatzen gaitu. Haren margolanek erreala eta alegiazkoa nahasten dituzten espazioetan murgiltzen gaituzte, eta abstrakzioaren eta figurazioaren arteko harremanari buruz hausnartzera garamatzate. **Pertzepzioa, kolorearen erabilera eta konposizioa** jorratzeko aitzakia bikaina.



Barbara Kruger: *Untitled (Nuestra gente es mejor que la vuestra)*, 1994/2025. Inprimaketa digitala binilo gainean. Eskaintza: artista eta Sprüth Magers

Maria Helena Vieira da Silva: *Balleteko figura (Figure de ballet)*, 1948. Olio-pintura eta grafitoa mihise gainean, 27 x 46 cm. Eskaintza: Galerie Jeanne Bucher Jaeger, Paris - Lisboa. ©Maria Helena Vieira da Silva, VEGAP, Bilbao 2025. Argazkia: eskaintza, Jeanne Bucher Jaeger, Paris

Lurraren arteak
Abenduak 5, 2025–maiatzak 3, 2026

Teknika eta material ezberdinak erabiliz artistek naturari eta ingurumenari lotutako gaiak nola jorratzen dituzten aztertzeo aukera eskaintzen duen erakusketa da **Lurraren arteak**. Etorkizun jasangarria lortzeko ideiak, tresnak eta irtenbide posibleak aurkezten ditu, eta lurzorua zaintzarekiko ardurari erreparatzen dio bereziki. Agerian uzten du, gainera, Museoak **ingurumenaren jasangarritasunarekiko** duen konpromisoa.



Giuseppe Penone: *Azazkala eta ereinotz-hostoak (Unghia e foglie di alloro)*, 1989. Beira eta ereinotz-hostoak. Eskaintza: artista eta Marian Goodman Gallery. Argazkia: Alex Yudson

El Anatsui: *Itsaso gorakorra (Rising Sea)*, 2019. Aluminioa eta kobrezko haria, 800 x 1400 cm. Guggenheim Bilbao Museoa

Guggenheim Bilbao
Museoaren Bilduma
Irailak 30, 2025

Museoaren funtsak —azkenengo erosketak, dohaintzak eta maileguak barne— jendaurrean aurkezten dituen erakusketa berria: **XX. mende erdialdetik gaur egunera arteko** bidaia artearen historian zehar, Jean-Michel Basquiat, Helen Frankenthaler, Jeff Koons, Jenny Holzer edo Andy Warhol bezalako artista ezagunen 50 lan baino gehiagoren bitartez. Sortzaileek emozioak, ideiak eta gaiak lengoia eta estilo desberdinen bidez nola adierazten dituzten aztertzeo aukera paregabea.



Ruth Asawa: *Titulurik gabekia (S.046a-d, bi lobuludun launa formako talde esekia) [Untitled (S.046a-d, Hanging Group of Four, Two-Lobed Forms)]*, 1961. Bilduma: Diana Nelson eta John Atwater, honi agindutako dohaintza: San Francisco Museum of Modern Art. ©Ruth Asawa, VEGAP, Bilbo 2024, eskaintza: David Zwirner. Argazkia: Laurence Cuneo

Ruth Asawa
Martxoak 20–irailak 13, 2026

Material ez-konbentzionalak erabiltzen aitzindaria izandako Ruth Asawa artistaren obrek sormenari, berrikuntzari eta norberaren mugak gainditzeari buruzko kontakizun boteretsua dute atzean. Jatorri japoniarreko egile estatubatuarrak alantrezko forma delikatuak sortu zituen: eskulturaren muga tradizionalei aurre eginez espazioan zintzilik daudela ematen duten piezak.

